

**2003KO EKAINAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita seia.

**HILABETEA:** Ekaina.

**URTEA:** Bi mila eta hirua

**HASIERAKO ORDUA:** Hemeretziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Apartekoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Pello Garaialde Goikoetxea  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Imanol Aranburu Gutierrez  
Juan Martin Aldaregia Etxebarria  
Jon Olano Arrese  
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga  
Malu Vallés Fernandez  
Aitor Aldasoro Iturbe  
Ana Asla Egialde  
Jon Kortaberria Lasa  
José Antonio Sanchez Gutierrez  
Alfonso Segade González  
Julio Herreros Serna Jorge  
Gonzalo Zaldo y Arana  
Iñaki Saldaña Herrero

**ETORRI GABEA:** María Pilar Vispo Chamosa

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2003ko ekainaren 14ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresarik ez dagoelako.

## **2.- BATZARRALDIAK**

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA) osoko bilkuren maiztasunari buruzko proposamenaren berri eman du:

“Udalbatza Osoak, gutxienez ere bi hilabete behin ohiko batzarraldiak egitea. Bilerak, hilaren azkeneko ostegunetan, arratsaldeko zazpitan izatea proposatzen da.”

Alkate jaunak: “Orain dela zortzi urte hilen behin egiteko erabakia hartu zen, baina ikusirik oporraldiak daudela, geroztik eta orain proposatzen da gutxienez bi hilabete behin egitea. Horrek ez du esan nahi bilerak bakarrik, bi hilabete behin egingo direnik, behar bada baliteke egitea hilean behin edo hamabostaldi.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Antonio Sanchez (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Nosotros pensamos que si lo habitual es, y además de buena salud democrática es, celebrar un pleno cada mes, lo pudiéramos recoger como tal, salvo las excepciones de los períodos vacacionales. Si se recoge y se aprueba que los plenos son al menos cada dos meses, la vida municipal quedaría en el tiempo obsoleta.”

Alkate jaunak: “Creo que hace ocho años fue precisamente el partido socialista quien propuso que la periodicidad fuera de al menos de dos meses, teniendo en cuenta los períodos inhábiles. Nosotros normalmente celebraremos cada mes, y si hay necesidad cuantas veces estimemos conveniente.”

Iñaki Saldaña (EB/IU) jaunak: “Considero que la propuesta que ha formulado el partido socialista es acertada en cuanto a matización, para que la gente del pueblo no piense que nos tomamos bastantes vacaciones.”

Alkate jaunak: “Se propone celebrar sesión el último jueves de cada mes, luego implícitamente ya se dice que todos los meses se celebrará, pero el mínimo es cada dos meses.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondongo emaitza hartu da:

Aldeko botoak: 14 (EAJ/PNV-EA, PP, EB/IU)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 ((PSE-EE/PSOE  
Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

**3.- BATZORDE TXONTEGILEAK.** Batzorde txostengileak eratzeko proposamena.

Alkate jaunak, proposamenaren berri eman du:

**“GAIA: BATZORDE TXOSTENGILEEN SORKUNTZA ETA OSAKETA**

1.- Batzorde txostengileak, izaera osagarriko organo kolegiatuak dira eta beren helburua, udalbatzaren osoko bilkuretan edota gobernu batzordeetan erabaki behar diren gaiak aztertzea, haiei buruzko txostenak egitea edota egindako kontsultei erantzutea da.

2.- Aurreko agintealdian, ondorengo batzorde txostengileek aritu dira Udal honetan:

- 1.<sup>a</sup>- Hazienda- eta Ondare-batzordea
- 2.<sup>a</sup>- Gobernazio-batzordea
- 3.<sup>a</sup>- Hirigintza eta ingurugiro batzordea
- 4.<sup>a</sup>- Kultura eta hezkuntza batzordea
- 5.<sup>a</sup>- Gazteri eta Kirol-batzordea
- 6.<sup>a</sup>- Euskara-batzordea
- 7.<sup>a</sup>- Zerbitzu- eta Landa-ingurune batzordea
- 8.<sup>a</sup>- Sanitate- eta Gizarte-ongizate batzordea

3.- Alkatetza honek, Antolakuntza eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 124.2 artikulua ematen dizkion eskuduntzak erabiliz, Udalbatza Osoari, onets dezan, ondorengo

**PROPOSAMENA EGITEN DIO:**

**Lehenik.-** Izaera iraunkorreko ondorengo batzorde txostengileak eratzeari:

- 1.<sup>a</sup>- Hazienda- eta Ondare-batzordea
- 2.<sup>a</sup>- Gobernazio-batzordea
- 3.<sup>a</sup>- Hirigintza batzordea
- 4.<sup>a</sup>- Kultura eta hezkuntza batzordea
- 5.<sup>a</sup>- Gazteri eta Kirol-batzordea
- 6.<sup>a</sup>- Euskara-batzordea

- 7.<sup>a</sup>- Zerbitzu- eta Landa-ingurune batzordea
- 8.<sup>a</sup>- Gizarte-ongizate batzordea.
- 9.<sup>a</sup>- Ingurugiro batzordea.

**Bigarren.-** Kontuen Batzorde Bereziaren funtzioak, Hazienda eta Ondare batzordeak beteko ditu.

**Hirugarren.-** Batzorde txostengile guztiek, gutxienez hilean behin egingo dituzte bilerak eta Batzordeburuaren esku gelditzen da bilera horiek egiteko eguna eta ordua jartzea.

**Laugarren.-** Batzorde bakoitza, Udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako ordezkariak dagokien proportzioan esku hartzen dutela eratu izango da.

**Bosgarren.-** Horren ondorioz, batzorde guztiak zortzi zinegotziz osatuta egongo dira eta banaketa ondorengo izango da:

E.AJ.-P.N.V./E.Akoak .....	4
(PSOE)-PSE-EE/PSOE.koak ..	2
P.P.koak .....	1
E.B.koak.....	1

**Seigarren.-** Talde politiko bakoitzak batzorde bakoitzean izango dituen ordezkarien izendapen zehatza, Alkatetzako ebazpen bidez egingo da, talde politiko bakoitzeko bozeramaileak idatziz proposamena eginda.

**Zazpigarren.-** Herritarren partaidetzari ere leku ematearren, batzorde bakoitzean, zinegotzi ez diren ordezkariak ere sartu ahal izango dira, alde aurretik batzordeburuari adierazita.

**Zortzigarren.-** Batzorde bakoitzeko batzordeburutza eta bere erantzukizuna, EAJ-PNV/EA taldeari ematen zaio.

**Bederatzigarren.-** Batzorde bakoitzeko batzordeburuaren izendapena, Alkatetzako dekretu bidez egingo da.

**Hamargarren.-** Batzorde bakoitzaren eginkizunak eta funtzioak, proposamen honen eranskinean izendatzen diren gaiekin lotuta egongo dira.

**Hamaikagarren.-** Batzordeen funtzionamendua, erakunde lokalen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Erregelamenduko 134. artikulutik 138.erakoetan ezarrita dauden arauak eraberritu eta egokitu zaie."

BATZORDE BAKOITZAREN EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK

**HAZIENDA ETA ONDAREAREN BATZORDE INFORMATZAILEA.**  
2003 URTEA

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIK</u></b>
<p style="text-align: center;"><b>OGASUNA</b></p>	<p style="text-align: center;">                     ORDENANTZA FISKALAK                      AURREKONTUAK                      KONTABILITATEA                      ZERGAK                      TASAK                      ERROLDA FISKALAK                      ZERGABILKETA                      ORDAINKETA-GERORATZEAK                      IRUZURRAK                      SARRERA-ITZULKETAK                      BAJAK                      BERANKORRAK                      FAKTURAK                      KREDITU LOKALA                      MAILEGUAK                 </p>
<p style="text-align: center;"><b>ONDAREA</b></p> <p>Lehenengo kasuan ezik, alde zuzeneko aurretik hirigintza batzordeko txostena beharko da.</p>	<p style="text-align: center;">                     INBENTARIOA                      ONDASUN-INSKRIPZIOA                      DESAFEKTAZIOA                      ESKURATZEAK                      BESTERENTZEAK                      TRUKEAK                      LAGAPENAK                      PROBETXAMENDUAK                      ERRENTAMENDUAK                      DEFENTSA                      MUGAKETAK                 </p>
<p style="text-align: center;"><b>BESTE BATZUK</b></p>	<p style="text-align: center;">                     SUBENTZIOAK                      EMARIAK                      HIPOTEKAK                      FIDANTZAK                 </p>

**GOBERNAZIO BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003 URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>ORDENA PUBLIKOA</b>	EPAITEGIA ISUNAK ARMAK UDALTZAINZTA ELKARBIZITZA PORTAERA BABES ZIBILA HODAMENDI PUBLIKOAK
<b>PERTSONALA</b>	PLANTILA SANITATE-ASISTENTZIA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK OPORRAK ORDUTEGIA DISZIPLINA KONTRATAZIOAK NOMINAK GIZARTE-SEGURANTZA BULEGOAK
<b>ZIRKULAZIOA</b>	ISTRIPUAK ISUNAK TXIRRINDULARI-PROBAK APARKALEKUAK HESIAK GARABIA GARRAIOAK TAXIAK RENFE TRAFIKOA SEMAFOROAK SEINALEAK
<b>BESTE BATZUK</b>	SINDIKATUAK BARRAKAK HIRI-POLIZIA

**HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003. URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>HIRIGINTZA</b>	PLANEAMENDUA URBANIZAZIOA ERREPARTZELAZIOA ERAIKINA OBRA-BAIMENAK ETXEBIZITZA BALKOIAK AURRIA HIRIGINTZA DISZIPLINA
<b>OBRAK</b>	KONTRATAZIOA NAHITAEZKO DESJABETZA BIDE PUBLIKOAK ZOLAZTADURA ACERAS ESPALOIAK
<b>BESTE BATZUK</b>	POLIZIA HIRITARRA JARDUERA GOGAIKARRIAK KUTSADURA KEAK ZARATAK

**KULTURA ETA HEZKUNTZAREN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003.**  
**URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>KULTURA</b>	LIBURUTEGIA KULTUR ETXEA ARGITARAPENAK MONUMENTUAK INDUSKETAK ESPELEOLOGIA MUSEOAK ARTEA MUSIKA ERAKUSKETAK ARTISAUTZA JAIK LEHIAKETAK HITZALDIAK JAIALDIAK KANTALDIAK IKUSKIZUNAK ZINEA ANTZERKIA OHITURAK
<b>BESTE BATZUK</b>	<b>TURISMOA</b>
<b>HEZKUNTZA</b>	<b>IKASTETXEEKIN HARREMANAK</b>

**GAZTERI ETA KIROLAREN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003. URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>GAZTERIA</b>	GAZTEEN LEKUA GAZTEEN EKINTZAK
<b><u>KIROLAK</u></b>	INSTALAZIOAK KIROLDEGIA KIROL ELKARTEAK PARTAIDETZAK

**EUSKARAREN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003. URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>EUSKARA</b>	BIZI BERRITZE PLANA EUSKALTEGIA ERROTULAZIOA ITZULPENAK SUBENTZIOAK LEHIAKETAK

**ZERBITZU ETA LANDA INGURUNEAREN BATZORDE INFORMATZAILEA 2003**  
**URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>HILERRIA</b>	HILOBIAK PLAKAK HILOBIRATZAILEA
<b>URA</b>	UR-KUDEAKETAREN JARRAIPENA
<b>ESTOLDERIA</b>	ESTOLDERI KUDEAKETAREN JARRAIPENA
<b>ZABORRAK</b>	ZABOR BILKETA KUDEAKETAREN JARRAIPENA
<b>ARGITERIA</b>	ARGITERIA PUBLIKOA UDALAREN ERAIKINEN ARGITERIA FAROLAK MATXURAK LANPARA-BIRJARPENA
<b>AZOKA</b>	AZOKAKO POSTUAK KIOSKOA SALMENTA IBILTARIA
<b>ALOKAIRUAK</b>	UDAL ONDASUNEN ALOKAIRUA
<b>PARKEAK</b>	LORATEGIAK BERDEGUNEAK UME-PARKEAK INUSKETAK
<b>LANDA SUSTAPENA</b>	AUZOAK BASERRIAK BIDEAK NEKAZARITZA ABELZAINITZA MENDI ETA BASOAK ESKUALDEA
<b>BESTE BATZUK</b>	KOMUNAK

**GIZARTE ONGIZATEAREN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003 URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>ONGIZATEA</b>	GIZARTE ONGIZATEA ONURA GIZARTE LAGUNTZAILEA AGUREAK AGUREEN EGOITZA ERRETIRATUEN ETXEA MINUSBALIATUAK GURUTZE GORRIA DROGADIKZIOA KONTSUMOA HIRUGARREN MUNDUAREKIKO LANKIDETZA ETORKINAK GIZARTE MARGINAZIOAREN BAZTERKETA
<b>SANITATEA</b>	ANIMALIEN ORDENANTZA
<b>FAMILIA</b>	ADIN TXIKIKOAK

**INGURUGIROAREN BATZORDE INFORMATZAILEA. 2003. URTEA**

**EGINKIZUNAK ETA FUNTZIOAK**

<b><u>ARLOAK</u></b>	<b><u>GAIAK</u></b>
<b>INGURUGIROA</b>	PAISAIA NATURALAK EKOLOGIA AGENDA LOKALA 21

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**4.- UDAL ORDEZKARIAK.** Erakunde kolegiatueterako udal-ordezkariak izendatzeko proposamena.

Alkatea jaunak, proposamenaren berri eman du:

**“GAIA: ORDEZKARIEN IZENDAPENA**

Udala ordezkatuta egon behar duen organo kolegiatuan, ondorengo zinegotzien izendapena egitea proposatzen da:

**Tolosako Hiltegi Mankomunatua**

Titularrak: Patxi Plazaola Muguruza jauna.  
Jose Antonio Ibaibarraiga Usabiaga jauna.

Ordezkoak: Pello Garaialde Goikoetxea jauna.  
Jon Olano Arrese jauna.

**Sasieta Mankomunitatea**

Titularrak: Pello Garaialde Goikoetxea jauna.  
Patxi Plazaola Muguruza jauna.

Ordezkoak: Imanol Aranburu Gutierrez jauna.  
Jose Antonio Ibaibarraiga Usabiaga.

**Enirio-Aralarko Mankomunitatea**

Titularrak: Patxi Plazaola Muguruza jauna.  
Ordezkoa: Jose Antonio Ibaibarraiga Usabiaga jauna.

**Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartea**

Titularra: Patxi Plazaola Muguruza jauna.

**Ur-partzuergoa**

Titularra: Patxi Plazaola Muguruza.  
Ordezkoa: Pello Garaialde Goikoetxea.

**Beasain Lantzen, S.A.**

Puntu honetan ondorengo proposatzen da:

Lehenik. Korporazioko Udalbatza Osoak osatzen duen Batzar Orokorra eratzea.

Bigarren. Orain arte izandako Administrazio Kontseiluaren kideen izendapena bertan behera uztea, hau da:

Lehendakaria: Jon Jauregi Bereziartua  
Kontseilaria ez zen idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza  
Bokalak: Patxi Plazaola Muguruza  
Pello Garaialde Goikkoetxea  
Andoni Antxia Etxeberria  
Pablo Parra Moreno  
Julio Herreros Serna

Hirugarren. Ondorengo pertsonak eta aipatzen diren karguetan Kontseilari berriak lau urteetarako izendatzea:

Lehendakaria: Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo Alkate-Lehendakaria  
Kontseilaria ez den idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza  
Bokalak: Patxi Plazaola Muguruza, Pello Garaialde Goikoetxea, Imanol Aranburu Gutierrez, Jose Antonio Sanchez Gutierrez, Julio Herreros Serna, Iñaki Saldaña Herrero.

Laugarren. Patxi Plazaola Muguruza, Administrazio Kontseiluko Lehendakariari baimena ematea, notario aurrean azaltzeko eta erabaki hauek eskritura publikoan jartzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, José Antonio Sanchez, PSE-EE/PSOeko ordezkariak eskatu du, proposamen guztia bozkatu ordez, organo kolegiatu bakoitzarentzako proposatzen dena bozkatzea.

Alkate jaunak onartu egin du. Bozketak egin dira eta emaitzan hauek izan dira:

Tolosako Hiltegi Mankomunatua, Sasieta Mankomunitatea, Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Goierriko Mendi Nekazaritza Elkarte eta Ur-Partzuergorako ordezkarien izendapenari buruzko proposamena:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA)  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE, PP, EB/IU)  
Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

Jarraian bozkatu da, Beasain Lantzen, S.A.rekiko ordezkarien izendapena. Eraitza ondorengo izan da:

Aldeko botoak: 16 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP, EB/IU)  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 0  
Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, aho batez onartu da Beasain Lantzen, S.A.rekiko proposamena.

## **5.- TALDE POLITIKOEN ASIGNAZIOAK**

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du, adieraziz aspaldidanik onartutako formula dela eta orain arte ondo funtzionatu duenez, mantendu egiten dela:

### **“Gaia: talde politikoei ordaindu beharreko asignazioak**

Alkatetza honek proposatzen du, ondoren aipatzen diren kontzeptuak kontutan hartuta, orain arte talde politikoei ordaintzen zitzaizkien asignazioak aurrerantzean ere ordaintzea, hau da:

TALDEA	ZINEGOTZIA	BATZORDE- LEHENDAKARITZAK	ORDEZKARITZAK
123,32 €	328,87 €	616,63 €	411,10 €

Kopuru hauek urtero gehituko dira KPIren arabera eta hileroko ordainduko dira. Talde politiko bakoitzak jasoko duen diru kopurua ondorengo izango da:

- Taldeari dagokiona zinegotzi kopuruarengatik biderkatuta.
- Zinegotziari dagokiona, zinegotzi kopuruarengatik biderkatuta.
- Batzorde-lehendakariari dagokiona, taldeak dituen lehendakariaren kopuruarekin biderkatuta.

- Ordezkaritzari dagokiona, taldeak dituen ordezkaritza kopuruarekin biderkatuta.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Proposamen honi ondorengo erantsi behar zaio:

- Kontzeptu horiek ez dira metagarriak, baztertzailak baizik, hau da, zinegotzi bat batzordeburua bada, dirua jasotzen du batzordeburuarengatik eta ez zinegotziagatik. Alkateak dedikazio eskusiboa badu eta batzordeburu bada, ez du jasotzen batzordeburu bezala. Zinegotziren batek ordezkaritza badu, ez du jasotzen zinegotziaren dirua, baizik eta ordezkaritzarena.
- Hamalau ordainketa izango dira.
- Egunerokotasuna, 2004ko urtarrilaren 1rtik aurrera aplikatuko da, hau da urte naturala kontsideratuko da.
- Ordainketa 2003ko ekainaren 15etik egingo da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Antonio Sanchez (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Efectivamente, este sistema se estableció hace tiempo y de alguna manera ha quedado un tanto obsoleto. Desde este grupo municipal y por la experiencia en otros Ayuntamientos entendemos que se debía de aplicar una discriminación positiva hacia los grupos minoritarios representados en el Ayuntamiento. Es una opción que este grupo la aplica en otros municipios de Gipuzkoa y se pueden poner ejemplos. En concreto lo que nosotros planteamos es una propuesta alternativa. Proponemos:

- Una asignación por grupo político representado en el Ayuntamiento de 600 € mensuales.
- Por corporativo o escaño, de cada uno de los grupos 123,32 €.
- Asignación a cada concejal electo de 428 €, desde la fecha de hoy.
- Sin estimar cantidades concretas, pensamos que habría que incrementar en la misma medida la asignación a las presidencias de comisiones y a las delegaciones, porqu entendemos que unas y otras tienen una carga superior, tanto de cantidad de trabajo como de calidad de trabajo y responsabilidad.

Si al inicio de la legislatura hacemos esta modificación en lo que es el espíritu general, sin hacer unas modificaciones ni sustanciosas ni sustanciales ni bárbaras, podremos ir adecuándonos a otro de tipo de situaciones en el

futuro, independientemente de que luego se apliquen los incrementos salariales en las fechas en que la negociación colectiva se materialice.

Si se considera que debe ser analizada la propuesta, ha de dejarse encima de la mesa para otra ocasión.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak: “Nuestra propuesta es empezar con la planteada desde Alcaldía y nos damos un plazo hasta septiembre para estudiar la vuestra.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da Alkatetzaren proposamena.

## **6.- ALKATEAREN SOLDATA**

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

### **“Gaia: Alkatearen ordainsaria**

Alkatetza honek Udalbatza Osoari, ondorengo erabaki-proposamena egiten dio, Beasaingo Udalarekiko dedikazio eksklusiboa izan behar duen Alkatearen soldatari buruz, onartu dezan:

**“2001eko irailaren 27an partidu politikoek, Eudeleko Batzorde Exekutiboak proposatuta onartutako erabakia aplikatzea, hau da, Alkatearen soldata, Eusko Jaurlaritzaren zuzendari baten parekoa, %10eko beherapenarekin izatea.”**

Jarraian adierazten du: “Orain arte aplikatutakoaren antzekoa da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Antonio Sanchez (PSE-EE/PSOE) jaunak: “Desconocemos la cantidad. Si es equivalente a la que hasta ahora se estaba aplicando, de acuerdo.”

Alkate (EAJ/PNV-EA) jaunak. “Si es equivalente. La retribución de un director del Gobierno Vasco es de 57.749,71 €. A esta cantidad hay que deducir el 10%. Por lo tanto, la cantidad exacta es la siguiente: 51.974,73 €. Anteriormente con el nivel 30 más el 15% de dedicación exclusiva eran aproximadamente 54.000 €.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13  
Aurkako botoak: 0  
Abstentzioak: 3 (PP, EB/IU)  
Etorri gabea: 1

## **7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK**

Ondorengo Alkatetza-ebazpen hauen berri ematen da:

a- Alkateordeen eta Gobernu Batzordearen kideen izendapena.

“Gaia: **Alkateordeak eta Gobernu Batzordeko kideak izendatzea.**

Alkatetza honek, legeriak ematen dizkidan eskurantzak erabiliz eta Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzeko dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,2 eta 23,1 artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Erret Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 41,3, 46,1 eta 52,2 artikulua dioenaren arabera, ondorengo

### **EBAZTEN DU**

**Lehenik.** Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren Alkateordeak eta Gobernu Batzordeko kideak hurrenez hurren izendatzea, indarrean dauden udal arauteriak ematen dizkien eskuduntza eta prerrogatiba guztiekin, Udal honetan ordezkari izan den EAJ/PNV-EA koalizioko ondorengo zinegotziak:

- 1.- **PELLO GARAIALDE GOIKOETXEA**
- 2.- **ARANTXA ASEGINOLAZA AZKARGORTA**
- 3.- **IMANOL ARANBURU GUTIERREZ**
- 4.- **JOSE ANTONIO IBAIBARRIAGA USABIAGA**

**Bigarren.** Ebazpen honen berri zinegotzi interesatuei ematea. Udalbatza Osoari jakinaraz gainean jartzea egiten duen lehenengo bileran eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Beasainen 2003ko ekainaren 23an. Alkatea. Patxi Plazaola Muguruza”

b- Batzorde informatibo-lehendakarien izendapena eta eskurantzaren eskuordetza.

“Alkatetza honek egun indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz eta Erregimen Lokaleko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 43. eta 125 artikuluan xedatutakoa kontuan izanik, ondorengo

### **EBAZTEN DU**

**Lehenik.** Jarraian aipatzen diren zinegotziak ondorengo batzorde informatzaileen lehendakariak izendatzea:

1.- HAZIENDA ETA ONDARE-BATZORDEKOA: **Jon Olano Arrese jauna** (EAJ-PNV/EA)

2.- GOBERNAZIO-BATZORDEKOA: **Malu Valles Fernandez andereñoa** (EAJ-PNV/EA)

3.- HIRIGINTZA BATZORDEKOA: **Patxi Plazaola Muguruza jauna**(EAJ-PNV/EA)

4.- KULTUR ETA HEZKUNTZA-BATZORDEKOA: **Arantza Aseginolaza Azkargorta andrea** (EAJ-PNV/EA)

5.- GAZTERI ETA KIROL-BATZORDEKOA: **Pello Garaialde Goikoetxea jauna** (EAJ-PNV/EA)

6.- EUSKARA-BATZORDEKOA: **Aitor Aldasoro Iturbe jauna**(EAJ-PNV/EA)

7.- ZERBITZU- ETA SUSTAPEN-BATZORDEKOA: **Juan Martin Aldaregia Echeverria jauna** (EAJ-PNV/EA)

8.- GIZARTE-ONGIZATE BATZORDEKOA: **Imanol Aranburu Gutierrez jauna** (EAJ-PNV/EA)

9.- INGURUGIRO BATZORDEKOA: **Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga jauna** (EAJ-PNV/EA).

**Bigarren.** Udal Patronatuen lehendakaritza, zinegotzi hauei ordezkatuko zaizkie:

1.- Antzizar kiroldetikoko Fundazio publikoko lehendakaritza, **Pello Garaialde Goikoetxea** zinegotzi jaunari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

2.- Udal Euskaltegiko Fundazio publikoko lehendakaritza, **Aitor Aldasoro Iturbe** zinegotzi J.ari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

3.- Loinatz Musika Eskola Publikoko Fundazio patronatuko lehendakaritza, **Arantza Aseginolaza Azkargorta** zinegotzi A.ari eskuordetu zaio. (EAJ-PNV/EA)

**Hirugarren.** Emakumezkoen arloko eskuordetza **Ana Asla Egialde** andreaki (EAJ-PNV/EA) ematen zaio.

**Laugarren.** Ebazpen honen berri interesatuei nahiz Udalbatza Osoari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Beasainen 2003ko ekainaren 23an. Alkatea. Patxi Plazaola Muguruza.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.